

GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATZEAGATIK

SARIA EMATEKO ZOZKETA – 2014

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera arauzkotzezkoak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntzaren esparruan dituzten eskubide nagusiak xedatzen ditu bere 5. artikuluan, eta ondoren, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren atalburuetan eskubide horiek bitzita sozialaren esparru guztietara hedatzen ditu. Legeak, halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die herri administrazioei, besteak beste, bitzita sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Eskoriatzako Udalak, gainera, bereziki gazteengan eragin nahi du, euskara ahalik eta esparru gehienetan erabil dezaten. Hori dela eta, gidabaimena euskaraz prestatu dutenentzako deialdi hau egiten du.

Deialdiaren helburua da Eskoriatzan 2014. urtean gidabaimena euskaraz prestatu dutenei euren matrikula kostuaren zati bat ordaintzeko diru laguntza emateko irizpideak arautzea.

ZEINEK HARTU DEZAKE PARTE ?

2014. urtean Eskoriatzako autoeskolan gidabaimena euskaraz prestatu dutenek.

SARIA eta SARIDUNAK AUKERATZEKO MODUA:

Bi sari egongo dira, bakoitza 263 eurokoa. Prezio hori autoeskolak emandako matrikularen prezioa kontuan hartuta kalkulatu da. Saridunak aukeratzeko zozketa egingo da, hau da, gidabaimenaren prestakuntza euskaraz egin duten ikasleen arteko zozketa, eta bertan ateratako bi izenak izango dira saridunak.

SARIKETAN PARTE-HARTZEA:

Autoeskolan bertan beteko dute eskaera-orria interesatuek eta autoeskola arduratuko da Eskoriatzako Udalari informazio hori bidaltzeaz.

**SARIA EMATEKO ZOZKETA:**

2014ko abenduaren 19an egingo da zozketa, eta parte-hartzaile guztien eskarien artean alirizira aterako da irabazlearen izena. Zozketa publikoa izango da eta interesatuek parte-hartu ahal izango dute.

ORDAINKETA:

Sariak ordainketa bakarrean ordainduko ditu Udalak, irabazleek emandako kontu zenbakietara zuzenean, zozketa egin eta hurrengo bi hilabeteen epean gehienez.

AURREKONTUA:

Eskoriatzako Udalak indarrean duen aurrekontuaren 0402.481.455.10.01 partidaren kontura egingo du 635 euroko gastu erreserba.